

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO-ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

#### **Izena aldatzeraren hasierako onarpena**

Kuadrillako batzarrak, 2019ko abenduaren 5ean egindako ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezuko-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren izena aldatzeari; izen berria hau izango da: Arabako Mendialdeko Kuadrilla euskaraz eta Cuadrilla de Montaña Alavesa erderaz.

Otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta elementu bereizgarriak arautzen dituenak, bere 62. artikuluan xedatutakoari jarraituz, espediente hori jendaurrean jarriko da 30 egun baliodun iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitara ematen da hau.

Santi Kurutze Kanpezun, urtarrilaren 18an

*Lehendakaria*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**